

AITZINA

Editorea: Fermin Munarriz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal.
Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruña. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-213329. E-mail: aitzina@haka.net

NORANTZA

ARTZEA LÓPEZ

GATUZAIN ARGIALETXEAREN PARTAIDEA

«Iparraldeko herri mugimenduaren oihartzuna izan nahi dugu»

Xuberoako maskaradan «Gatuzain» pertsonaiak espiritu txarrak etxetik uxatu egiten ditu, eta Iparraldean jaio berria den argialetxe honek horixe bera egin nahi du, desinformazio eta pentsamendu bakarraren espirtuak bere aldamenetik uxatu.

BEOÑA SIMON

Joan den apirilean bere aurkezpena egin zuen argialetxe honek, eta udaberri osoa bere partaideek lanean eman dute: lan lidoak definitzen eta argialetxe munduan Iparraldean zegoen hutsunea aztertzen. Orain, uda iritsi deanean, argia ikusiko du lehenengo fruituak. «Gatuzain» argialetxearen lehen liburak.

Zein izango da lehenengo liburua hori?

Bixente Virgnonek idatzitakoa. Iparraldeko kazetari honek Iparraldeko herri mugimenduari buruz idatzitako liburua da. Bixente Virgnonek herri mugimendua aztertu du, 1968. urtetik 1998. urtera, eta liburua hau uztailaren batean egongo da kalean.

Zenbat pertsonak egiten duzue lana Gatuzainen?
Modu iraunkorren bi perso-

nak, Patricia Martinon eta biok, biok argialetxe honen partaidea gara. Gero lan taldeak osatu dira, irakurketak egiteko eta abar, eta, horrez gain, kolaboratzaileak daude.

Zein azterketa egin ondoren jaio da argialetxe hau?

Ikusten genuen, politika, gaztedi, kultur edo tokiko gaiak irakurri nahi genituenean, beti jo behar izaten genuela hegoaldeko

idazleengana, nahiz eta Iparraldeko gaiak izan. eta orduan Iparraldeko jendeari zuzenduko zen argialetxe bat sortzearen beharra ikusi genuen eta, hori helburu, hasi ginen lanean. Gure helburua, azkenean, Iparraldeko herri mugimenduaren oihartzuna izatea da.

Zure ustez, Euskal Herri osoa hartuta, Iparraldea oraindik lurralderik ezezagunena da?

Nik uste dut Hegoalderik Iparraldea idealizatu eta idilikotzat hartzen dela, eta ez da hola, baina, alderantziz ere, Iparraldeko Hegoaldera begira, halako zerbaiz egiten da.

Zure ustez, zein momentu bizitzen ari da Iparraldeko herri mugimendua?

Nire ustez Iparraldean fase berri batean gaude, euskaltzaileak eta abertzaleak beste errespetua edo lortzen ari dira eta kontzientzia mailan ere aldaketak ematen ari dira. Nik uste dut momentu honetan bige gurutzet batean gaudela.

Zein erronka du Gatuzainek bere arrian, etorkizunari begira?

Momentu honetan guretzat oso inportantea da argialetxea sendotzea, eta hori denboraren poderioz lortuko da, argialetxe hau hasi berria baita. Bestalde, guk Iparraldeko jendeari gure orrialdeak eskaini nahi dizkiogu, eta Iparraldeko idazleei ere. Azken finean, Iparraldeko herri mugimenduentzat tresna bat izan nahi dugu.



Bob Edne

ZIRTOKA



Txillardegí

U.E.M.A.

Berria berehala zabaldu da aldizkari abertzaletan. Gainerakoetan ez, jakina: "¿Otro golpe contra el vascoence? No es noticia".

1992an onartu zituen Aizarnazabalek bere Udal Ordenantzak. Orain legetik ari jarri ditu Madrilgo gobernuak. Nahiz Aizarnazabalgo 544 biztanleatik (1996) 541ek euskaraz jakin. Familia eraldun bakarrek hiru pertsonaren ohoretan. Aizarnazabalen euskara hutsez bizi nahi izatea, "actitud discriminatoria, excluyente, insolidaria" eta abar iruditu zaie.

Okerragorik badago, dena dela. Zeren eta, arrazoiz beragatik, UEMA barruan dauden beste 32 udal eskuldunak, legetik ari baitaude edonon.

Garaiokotearen garaian, irakurleak dakikeenez, eta P.M. Erxanikeren eskutik, 1982ko azaroaren 24an Baskogadetan legetatu zen Normalizazio Legea berehala inpugnatu zuen Estatuak: 1986an preseski.

Zergatik? 8.3 puntuan eskualde euskaldunetan udal-mailan euskara hutsez ibiltzea legetatzen zuelako.

Euskararen kontrako kolpe hau, beraz, 1986an Madrilke irekitako bi detik dator: Hego Euskal Herrian euskara hutsez ibiltzea "ilegala" dela erabaki dute.

Hots, Europara narama honek. Belgika eta Suitza ele-anizkuntan, eskualde osoak dira elebakarrak: ez udalak bakarrik. Eta askoz ere moderatuago den Finlandian bertan ere, elebakarrak dira udalik gehien-gehienak. Suomiera hutsez ari diren udalak ez zaizkiugu oso harrigarri gertatzen: suomieraz mintzo diren finlandiarrek, borroka luzearen fruitu, % 94 dira gaur egun.

Baina suediar gutxiengoak (300.000 lagun, % 6) baditu suediera hutsez ari diren udalak: 7 Vaasa inguruan, Bothnian; beste 3 Hego-Mendebaldean; eta beste 16 Aaland uhartetan.

Baina Finlandia Europa da.


AITZINDARIAK

ELEMENTIA

ORODATZUEZ NOLA FUEITSENEUNA



«En la mañana de este día, ha amanecido la lápida constitucional con dos balazos»
1820-XI-26-COBELLAN



«Personas poco timoratas, desde la plaza de Pedrabas, rompieron la tábula de la Constitución la pasada noche»
1822-V-12-MENDIGORRIA



«Se ha observado hallarse manchada con excremento humano la lápida erigida en la plaza de la Constitución de esta Ciudad.»
1821-VI-30-ZANGOZA



«Derribada la lápida de la Constitución y hecha pedazos la arrojaron al río. Después de esto escucha escandalosa burladon en la Casa Consistorial con la voz subversiva de: ¡Muera la Constitución!»
1822-VI-16-UITARROZA

